



174/2015 EBAZPENA. EKAINAREN 1EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARITZARENA, 2014 URTERAKO EZARRITAKO FUNTS SOZIALAREN BANAKETA EZARTZEKO DENA

Indarrean dagoen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko pertsonalaren lan-baldintzak 2007, 2008 eta 2009 urteetarako arautzen dituen Akordioko 25. artikuluan, 69.116,39 euroko funts ekonomikoa ezarrita dago, Akordioko beste artikuluetan jaso ez diren beste atentzio sozial batzuk finantzatzeko.

Giza Baliabideetako Zuzendaritzak 2014ko abenduaren 19an bidalitako zirkularren bidez, eskabideak aurkezteko deialdia egin zen. "Beste arreta sozial batzuetarako" atalari dagokion funts ekonomikoaren kargura egindako diru-laguntzak jaso ahal izateko.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Ente Publikoaren erakunde guztietan aurkeztutako eskabideak aztertu ziren. Hain zuzen, zirkularreko 1. artikuluan ("Laguntzen xedea eta helburua") jasotako laguntza-motei ez zegozkien eskabideak soilik baztertu dira.

Indibidualki emango diren laguntzak kalkulatzeko, behar bezala justifikatutako gastuek kasu bakoitzean eragiten duten galera ekonomikoa hartu da kontuan. Hain zuzen, 2014ko ekitaldian onuradun bakoitzak jasotako urteko ordainsari gordinen % 7 izango da. Ondorioz, behar bezala justifikatutako gastuen eta galera ekonomikoaren arteko diferentziagatik soilik emango dira laguntzak.

Funtsa behin betikoz banatu aurretik "Nazioarteko adopzioak" atalari dagozkion laguntzak esleitu dira. Zirkularreko 13. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, laguntza horiek orohoarreko prezioan eman dira.

Onartutako gainerako eskabideen guztizko zenbatekoa ikusita, eta galera ekonomikoa kenduta, laguntza indibidualak esleitu dira, proportzionaltasun-irizpidea aplikatuta eta Zirkularreko 2.4 artikuluan ezarritakoari jarraituz, onartutako eskabideen guztizkoak, behin galerari erantzunda, Funtsaren zenbatekoa (69. 116,39 euro) gainditzen zuen-eta.

Ebazpen hau eman aurretik, beste ebazpen bat eman zen, onartutako eta bazter geratutako eskabideen zerrenda zerbitzu-erakunde guztietako iragarki-oholetan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren intranetean argitaratu behar zela aginduz. Halaber, 20 eguneko epea ezarri zen egoki irizten ziren erreklamazioak aurkezteko.

Aipatutako epea amaituta, eta aurkeztutako erreklamazioak aztertu eta gero, ebazpena eman beharra dago, betiere, Zirkularreko 6.4 artikuluan xedatutakoaren arabera. Ebazpen horretan hala onartutako eskabideak nola bazter utzitakoak zehaztu behar dira; hain zuzen, ezarritako Funtsaren Xedearekin bat ez datozelako geratu dira baztertuta. Bestalde, hasiera batean onartutakoen artean bereizketa hau egingo da: batetik, galera ekonomiko indibiduala gainditzen zutenak, eta, bestetik, gainditzen ez zutenak. Azken horiei, bada, ukatu egin zaie funtsetik ezer jasatzeko aukera.

Horiek guztiak horrela, hau

EBATZI DUT:

1.-Funts Sozialaren 2014 urterako banaketaren gaineko ebazpena ematea. Funts hori abenduaren 18ko 235/2007 Dekretuko 25. artikulua bitartez ezarri zen, eta II. Eranskin gisa Osasuneko Mahai Sektorialak 2008ko martxoaren 14ko dataz adostutako Akordioa gehitu zitzaion, Akordio horren bidez, bada, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautu ziren 2007, 2008 eta 2009 urteetarako.

2.-Ebazpen honetan bereizita ageri dira onartutako eskabideak eta bazter utzitakoak. Onartutakoen artean, halaber, bi bloke daude: batetik, ezarritako galera ekonomikoa gainditzen ez dutenak eta, bestetik, gaindituta ere, funtsaren bidez eta proportzionaltasun-irizpidea aplikatuta lagunduko direnak, hasierako zenbatekoaren eta kaltearen arteko diferentzia dela-eta.

3.-Ebazpen honen jakinarazpena gauzatzeko, ebazpena bera jarriko da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean eta entitate publikoaren zerbitzu-erakundeetako iragarki -oholetan.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendari Nagusiari hilabeteko epean, ebazpena jendaurrean jartzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean, 30/1992 Legea aldatu zuen 4/1999 Legearen arabera.

Vitoria-Gasteizen.2015eko ekainaren 2an

 **Osakidetza**

José María Armentia Macazaga
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
Iz. José María Armentia Macazaga
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA